

**JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA  
GARRAIO  
ETA HERRI LAN SAILA**

**Zk-5849**

261/2000 DEKRETUA, abenduaren 19koa. Honen bidez, onetsi egiten da Gipuzkoako Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak hartutako erabakia, errepideen alorreko funtzio eta zerbitzu batzuk Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeetatik Lurralde Historikoetara eskualdatzeak Gipuzkoako Lurralde Historikoan izango duen eragina zehazteari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegorako Autonomia Estatutuak (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onetsi zenak) bere 10.34 artikuluan ezartzen duenez, errepide eta bideen alorrean lurralde historikoetako foru aldundiek osorik gordeko dituzte lehendik dituzten araubide juridikoa eta eskumenak, bai eta Estatutuaren 3. artikulua araberak berreskura ditzaketanak ere. Horrez gain, Konstituzioaren 148.1.5. artikulua aukera ematen die autonomia erkidegoei ibilbide osoa erkidegoaren lurraldean egiten duten errepideen gaineko eskumenak bereganatzeko.

Azaroren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzkoak, foru erakundeei bakarrik ematen die errepide eta bideen plangintza, proiektuak, eraikuntza, mantentzea, aldatketak, erabilera eta ustiapena egiteko eskumena. Autonomia Erkidegoko errepide-sareen arteko koordinazio egokia bermatzeko, foru erakundeek erkidego osorako erakundeek onetsitako plan nagusia indarrean jarri beharko dute.

Abenduaren 3ko 1837/1999 Errege Dekretuaren bidez, Estatuko Administrazioaren eta Autonomia Erkidegoaren arteko Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak zehaztu zituen Bizkaiko Golkoko A-8 (Bilbao-Behobia) autobidearen funtzio eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion, autonomia estatutuak xedatutakoa betez. Zehazki, erabaki horretako B).1 idatz-zatian jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoak bere lurralde historikoen eskumen-araubidearen arabera bereganatuko du posizio juridikoa, haien erakunde-arauek ezartzen dutenarekin bat etorritz.

Orain arte adierazitako guztia kontuan hartuz, aipaturiko 27/1983 Legearen lehen xedapen iragankorren bidez ezarritako Bitariko Batzordeak errepideen arloan zein funtzio eta zerbitzu eskualdatu behar diren zehaztu du, eta horri buruzko erabaki egokia hartu du 2000ko abenduaren 14an egindako osoko bilkuran. Eta hori guztia, ekainaren 19ko 196/1984 Dekretuak xedatzen duenaren arabera egin du; Dekretu horrek Er-

**VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO  
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES  
Y OBRAS PÚBLICAS**

**Nº-5849**

DECRETO 261/2000, de 19 de diciembre, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de Gipuzkoa, sobre traspaso, desde las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco al Territorio Histórico de Gipuzkoa, de funciones y servicios en materia de carreteras.

El artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece que en materia de carreteras y caminos, además de las competencias contenidas en el artículo 148.1.5.ª de la Constitución, que permite asumir competencias sobre las carreteras cuyo itinerario se desarrolla íntegramente en el territorio de la Comunidad Autónoma, las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos conservarán íntegramente el régimen jurídico y competencias que ostentan o que, en su caso, hayan de recobrar a tenor del artículo 3 de este Estatuto.

La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos últimos, en sus respectivos ámbitos territoriales y a través del artículo 7.a).8, la competencia exclusiva para la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, uso y explotación de carreteras y caminos, debiendo poner en vigor, al objeto de asegurar la debida coordinación de las redes de carreteras de la Comunidad Autónoma, el Plan General aprobado por las Instituciones Comunes.

Mediante Real Decreto 1837/1999, de 3 de diciembre, se procedió, en ejecución de las previsiones del Estatuto de Autonomía, a traspasar a la Comunidad Autónoma del País Vasco las funciones y servicios concretados por la Comisión Mixta de Transferencias entre la Administración del Estado y la Comunidad Autónoma, sobre la autopista A-8 del Cantábrico (Bilbao-Behobia). En concreto, el apartado B).1 de dicho Acuerdo viene a detallar que la posición jurídica de la Comunidad Autónoma del País Vasco es asumida en relación al régimen competencial de sus Territorios Históricos, conforme determinen sus normas institucionales.

En atención a las anteriores consideraciones, la Comisión Mixta establecida en la disposición transitoria primera de la mencionada Ley 27/1983 ha procedido según lo dispuesto en el Decreto 196/1984, de 19 de junio, por el que se aprobaron las normas de traspaso de servicios entre las Instituciones Comunes y el Territorio Histórico de Gipuzkoa, a concretar las funciones y servicios objeto de traspaso en materia de carreteras,

kidego osorako erakundeen eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren arteko zerbitzu-eskualdatzeak egiteko arauak onesten ditu.

Horren indarrez, aipaturiko 27/1983 Legearen lehen xedapen iragankorrean xedaturikoa betez, Jaurlaritzako lehendakariordeak eta Garraio eta Herri Lan sailburuak batera egindako proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko abenduaren 19an egindako bileran onetsi ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak hartutako Erabakia onestea. Erabaki horren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoak errepideen arloan duen eskumenari dagozkion funtzioak eta zerbitzuak zehazten dira. Bitariko Batzordeak 2000ko abenduaren 14an egindako osoko bilkuran onetsi zuen Erabaki hori, eta Dekretu honen Eranskinean jasota dago.

**2. artikulua.**— Ondorioz, Gipuzkoako Lurralde Historikoari eskualdatzen zaizkio Erabaki horretan jasotzen diren zerbitzuak, bertan zehazten diren moduan eta baldintzetan, bai eta Erabakiaren testuan eta erantsitako zerrendetan jasotzen diren ondasunak, eskubideak eta betebeharrak ere.

**3. artikulua.**— Eskualdatze hori Bitariko Batzordearen Erabakian bertan zehazten den egunean jarriko da indarrean.

**4. artikulua.**— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta dagokion Foru Dekretua, berriz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean; Dekretua aldizkari horietan argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko abenduaren 19an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Garraio eta Herri Lan sailburua,  
ALVARO AMMAN RABANERA.

#### ERANSKINA

Sabino Torre Díez jaunak, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeko idazkaria den aldetik, hau

#### EGIAZTATZEN DU:

Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak, 2000ko abenduaren 14an egindako osoko bilkuran, errepideen arloko funtzioak eta zerbitzuak Autonomia Erkidego

adoptando al respecto el oportuno Acuerdo en su sesión del pleno celebrado el 14 de diciembre de 2000.

En su virtud, de conformidad con lo dispuesto en la disposición transitoria primera de la citada Ley 27/1983, a propuesta conjunta de la Vicepresidenta del Gobierno y del Consejero de Transportes y Obras Públicas, y previa aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el 19 de diciembre de 2000,

#### DISPONGO:

**Artículo 1.**— Aprobar el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Gobierno Vasco-Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, por el que se determinan las funciones y servicios correspondientes a la competencia del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de carreteras, adoptado por el pleno de dicha Comisión en su reunión de 14 de diciembre de 2000, que se transcribe como Anexo al presente Decreto.

**Artículo 2.**— En consecuencia, quedan traspasados al Territorio Histórico de Gipuzkoa los servicios que se relacionan en dicho Acuerdo, en los términos y condiciones resultantes del mismo, y los bienes, derechos y obligaciones señalados en el texto del Acuerdo y relaciones anexas.

**Artículo 3.**— El presente traspaso surtirá efectos a partir de la fecha establecida en el propio Acuerdo de la Comisión Mixta.

**Artículo 4.**— Este Decreto será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, insertándose a su vez el oportuno Decreto Foral en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, entrando en vigor el mismo día de su publicación en dichos Boletines.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 2000.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Vicepresidenta del Gobierno,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,  
ALVARO AMMAN RABANERA.

#### ANEXO

D. Sabino Torre Díez, Secretario de la Comisión Mixta de Transferencias Gobierno Vasco-Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa

#### CERTIFICA:

Que en el Pleno de la Comisión Mixta de Transferencias celebrado el 14 de diciembre de 2000, se acordó el traspaso, desde las Instituciones Comunes de la

osorako erakundeetatik Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-erakundeei eskualdatzea erabaki zuela, jarraian zehazten den bezala:

A) Gipuzkoako Lurralde Historikoak errepedeen arloan izango dituen eskumenak.

Funtzio eta zerbitzuen eskualdatze hau 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremani buruzkoak, 7.a).8 artikuluan jasotzen duen eskumen-araudia betez egingo da; horrez gain, kontuan hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegorako autonomia estatutuak 10.34 artikuluan xedatzen duena eta aplikagarri diren gainerako araudiak.

B) Eskualdatzen diren zerbitzuak eta erakundeak, ondasunak, eskubideak eta betebeharrak.

1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru erakundeek beren gain hartzen dituzte Bizkaiko Golkoko A-8 (Bilbao-Behobia) autobideak Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten duen ibilbidearen plangintza, proiektu, eraikuntza, mantentze, aldaketa, erabilera eta ustiapenaren arloetako funtzio eta ahalmen guztiak, beren lurralde-eremuari dagokionez. Eta hori guztia, Erabaki honetan zehazten den moduan egingo dute.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak xedatzen duenarekin bat etorriz, Gipuzkoako Lurralde Historikoak, goian aipaturiko funtzioak betetzeko, indarrean jarri beharko ditu Erkidego osorako erakundeek onesten duten errepedeen plan orokorreko arau teknikoak nahiz seinaleztapenekoak. Horrez gain, gutxienez errepedeen plan orokor horretan ezartzen diren aurreikuspen, helburu, lehentasun eta hobekuntzak bete beharko ditu.

Era berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoak men egingo die errepedeak egiteko eta mantentzeko Estatuak ematen dituen arau tekniko orokorrei, alegia, nazioarteko hitzarmen, akordio edo gomendioen ondorioz ematen ditueni, Euskal Autonomia Erkidegorako Autonomia Estatutuaren 20.3 artikuluan ezarritakoa betez, nahiz Eskualdaketetarako Bitariko Batzordearen Erabakiak D idatz-zatian ezartzen duena betez (Erabaki hori abenduaren 3ko 1837/1999 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

2.- Gipuzkoako Lurralde Historikoari eskualdatzen zaio Bizkaiko Golkoko A-8 (Bilbao-Behobia) autobideak Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten duen ibilbidearen titulartasuna. Eskualdatze hori erantsitako 1. zerrendan zehaztuta dago.

3.- Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa gorabehera, A-8 autobidea kudeatzeko une honetan indarrean dagoen emakida-kontratuari dagokionez, kontratua amaitzen den arte Autonomia Erkidego osorako erakundeek eginkizunak izaten jarraituko dute honako hauek: enpresa emakidadunean Gobernuko Ordezkaritzaren birtatez egiten diren harreman formal eta kontrol ekonomikoko harreman guztiak bateratzea, emakidadunari bere araubide sozialarekin zerikusia duten baimenak

Comunidad Autónoma a los Organos Forales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, de funciones y servicios en materia de carreteras, de acuerdo con los términos siguientes:

A) Competencias del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de carreteras.

El presente traspaso de funciones y servicios se realiza al amparo de la regulación competencial que contempla el artículo 7.a).8 de la Ley 27/1983, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos, y de acuerdo con lo previsto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y demás normativa de general aplicación.

B) Servicios e Instituciones, bienes, derechos y obligaciones que se traspasan.

1.- Los Organos Forales del Territorio Histórico de Gipuzkoa asumen, con referencia a su ámbito territorial, todas las funciones y potestades en materia de planificación, financiación, proyecto, construcción, conservación, modificación, uso y explotación, sobre el tramo de la autopista A-8 del Cantábrico (Bilbao-Behobia) cuyo itinerario se desarrolla en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, todo ello en los términos que especifica el presente Acuerdo.

De conformidad con lo previsto en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, el Territorio Histórico de Gipuzkoa ejercerá dichas funciones poniendo en vigor las normas técnicas y de señalización que se establezcan en el Plan General de Carreteras que aprueben las Instituciones Comunes, así como realizando como mínimo las previsiones, objetivos, prioridades y mejoras que se establezcan en el citado Plan General de Carreteras.

Asimismo el Territorio Histórico de Gipuzkoa se sujetará a las normas técnicas que dicte el Estado sobre construcción y conservación de carreteras, con carácter general, en aplicación de convenios, acuerdos o recomendaciones de carácter internacional, de acuerdo con lo establecido en el artículo 20.3 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, e igualmente de acuerdo con el marco establecido en el apartado D del Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias aprobado por Real Decreto 1837/1999, de 3 de diciembre.

2.- Queda traspasada al Territorio Histórico de Gipuzkoa la titularidad del tramo de la autopista A-8 del Cantábrico (Bilbao-Behobia) cuyo itinerario se desarrolla en su territorio, quedando detallado en la relación anexa número 1.

3.- No obstante lo dispuesto en los apartados precedentes, respecto al contrato de concesión en vigor por el que se gestiona actualmente la autopista A-8, le seguirá correspondiendo a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma transitoriamente, hasta el vencimiento del contrato, llevar la unidad de todas las relaciones formales y de control económico que se realizan a través de la Delegación del Gobierno en la concesionaria, la aprobación de las autorizaciones a la con-

ematea onestea, eta autobidearen erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifetan eragina duten arau orokorrak onestea.

Bere jarduera guztietan, Erkidego osoko erakundeek Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru erakundeekin lankidetzan jardungo dute; era berean, bermatu egingo dute erakunde horiei eragiten dieten erabakiak —aurreko paragrafoan Erkidego osorako erakundeentzat erreserbatuak geratzen direnak— hartu aurretik, erakunde horiei jakinarazi egingo zaiela eta erabakietan parte hartuko dutela.

Halaber, emakida-kontratuari dagokionez, abenduaren 3ko 1837/1999 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Eskualdaketetarako Bitariko Batzordearen Erabakiak B.2 idatz-zatian xedatzen duena aplikatuko da, Estatuko Administrazioari dagokionez eta 2001eko abenduaren 31ra arte.

#### C) Balorazio ekonomikoa.

1.— Eskualdatzen diren funtzio eta zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegorako 2000ko ekitaldian izango duten urteko guztizko kostua, ikuskaritza teknikoari dagokionez, erantsitako 2. zerrendan jasota dago.

2.— Indarrean dagoen emakida-kontratuaren iraungitze-datatik aurrera, eskualdatzen diren funtzio eta zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoarentzat urteko izango duten guztizko kostuaren baitan sartuko da, halaber, Gobernuak enpresa emakidadunean duen ordezkartzari dagokiona ere.

3.— Eskualdatzeak indarra hartzen duen eguna ekitaldiko urtarrilaren laurkin bat etorriko ez balitz, dagokion ekitaldiko Euskal Autonomia Erkidegorako urteko guztizko kostua hainbanatu egingo da, lurralde historikoek eskualdatzea bere gain hartu duten urtearen zatiarekin proportzioan.

D) Eskualdatzen diren zerbitzuen dokumentazioa eta espedienteak.

Eskualdatutako zerbitzuen dokumentazioa eta espedienteak hilabeteko epearen barruan entregatu behar dira, Erabaki hau onesten duen Dekretuak indarra hartzen duenetik aurrera. Horretarako, bidezko aktak (onartzearenak eta entregatzearenak) izenpetuko dira.

E) Eskualdatzea indarrean noiz jarriko den.

Erabaki hau onesteko Dekretuak indarra hartzen duen eguna edozein delarik ere, eskualdatzea 2001eko urtarrilaren lehen jarriko da indarrean.

Eta jasota gera dadin, agiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, 2000ko abenduaren 14an.

cesionaria relacionadas con su régimen social y la aprobación de las normas de carácter general que incidan en las tarifas que han de ser abonadas por los usuarios de la autopista.

En todas sus actuaciones, las Instituciones Comunes procederán en colaboración con los Organos Forales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, garantizando la información y participación previa de éstos en las decisiones que, quedando reservadas a las Instituciones Comunes en el párrafo precedente, les afecten.

Asimismo respecto al contrato de concesión, en relación con la Administración del Estado y hasta el 31 de diciembre del año 2001, resulta de aplicación lo dispuesto en el apartado B.2 del Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias aprobado por Real Decreto 1837/1999, de 3 de diciembre.

#### C) Valoración económica.

1.— El coste total anual para la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ejercicio 2000 de las funciones y servicios que se traspasan, referentes a la Inspección Técnica, se recoge en la relación anexa número 2.

2.— A partir de la fecha de vencimiento del contrato de concesión vigente, el coste total anual para la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones y servicios que se traspasan incluirá asimismo el referente a la Delegación del Gobierno en la concesionaria.

3.— En el supuesto en que la efectividad del traspaso no coincidiese con el uno de enero del ejercicio se procederá a prorratear el coste total anual para la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el ejercicio que corresponda, proporcionalmente a la parte del año en que los Territorios Históricos hubieran asumido efectivamente el traspaso.

D) Documentación y expedientes de los servicios que se traspasan.

La entrega de la documentación y expedientes de los servicios traspasados se realizará en el plazo de un mes desde la entrada en vigor del Decreto por el que se apruebe este Acuerdo, suscribiéndose, a tal efecto, las correspondientes actas de entrega y recepción.

E) Fecha de efectividad.

Sin perjuicio de la entrada en vigor del Decreto aprobatorio del presente Acuerdo, el traspaso será efectivo a partir del día 1 de enero de 2001.

Y para que conste, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 2000.

## 1. zerrenda

Gipuzkoako Lurralde Historikoari eskualdatzen  
zaizkion ondasunen zerrenda

Ibilbidea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barruan egiten duten Bizkaiko Golkoko A-8 (Bilbao-Behobia) autobideko zatiak. Guztira 69,49 kilometro dira, eta bide-saririk gabeko tarte batek bi zatitan banatzen du, Donostiako saihebidetarikoa, hain zuzen ere.

Lehenengo zatiak 17,4 kilometroko luzera du guztira; 0,090 kilometro-puntutik hasten da, Frantziarekiko muga ondoan dagoen Behobiako nazioarteko zubian, eta Donostiako Intxaurren auzoan amaitzen da, 17,490 kilometro-puntuan.

Bigarren zatiak 52,09 kilometro ditu guztira; 22,760 kilometro-puntuan hasten da eta Gipuzkoako Lurralde Historikoak Bizkaiko Lurralde Historikoarekin muga egiten duen gunean amaitzen da, 74,85 kilometro-puntuan.

## 2. zerrenda

2000 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegorako  
urteko guztizko kostua, errepideak lurralde  
historikoei eskualdatzearen ondorioz

## 11. atala.- Garraio eta Herri Lanak

	Pezetak
Ikuskaritza teknikoa	120.374

**JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA  
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA****Zk-5850**

262/2000 DEKRETUA, abenduaren 19koa, giza zerbitzuen eta sorospenaren alorrean Itsas Gizonentzako Gizarte Institutuari (IGGI) esleitutako zeregin eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeetatik Bizkaiko lurralde Historikora transferitzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatu-tua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikuluko 12. puntuak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku uzten ditu, oso-osorik, gizarte-sorospenaren alorreko eskumen guztiak.

## Relación número 1

Relación de bienes que se traspasan al Territorio  
Histórico de Gipuzkoa

Tramos de la Autopista A-8 del Cantábrico (Bilbao-Behobia) cuyo itinerario se desarrolla en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con una longitud total de 69,49 kilómetros y dividido en dos tramos entre sí por uno libre de peaje, la llamada variante de San Sebastián.

El primer tramo desde el punto kilométrico 0,090 junto al puente internacional de Behobia en la frontera francesa, hasta el punto kilométrico 17,490 en el barrio de Intxaurren en San Sebastián, con una longitud total de 17,4 kilómetros.

El segundo tramo, desde el punto kilométrico 22,760 hasta el punto kilométrico 74,85, límite del Territorio Histórico de Gipuzkoa con el Territorio Histórico de Bizkaia, con una longitud total de 52,09 kilómetros.

## Relación número 2

Coste total anual para la Comunidad Autónoma del  
País Vasco en el ejercicio 2000 asociado al traspaso a  
los Territorios Históricos

## Sección 11.- Transportes y Obras Públicas

	pesetas
Inspección Técnica	120.374

**VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL****Nº-5850**

DECRETO 262/2000, de 19 de diciembre, de traspaso desde las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Bizkaia de las funciones y servicios en materia de Asistencia y Servicios Sociales, encomendada al Instituto Social de La Marina (I.S.M.).

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, en su artículo 10, número 12, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de asistencia social.